



LESAKAKO UDALA
Plaza Zaharra, 1
31770 Lesaka (Nafarroa)
IFZ P3115200B
[Telf. 948637005](tel:948637005)
www.lesaka.eus
udala@lesaka.eus

2024KO APIRILAREN 16KO 213/2024 ALKATEAREN EBAZPENA, ARKITEKTO TEKNIKOAREN LANPOSTUA ALDI BATERAKO KONTRATAZIOAREKIN BETETZEKO IZANGAIEN ZERRENDA HAUTAPROBEN BIDEZ OSATZEKO ONARTU ETA BAZTERTUTAKO IZANGAIEN BEHIN BETIKO ZERRENDA ONESTEN DUENA, OPOSIZIOAREN PROBA NON, NOIZ ETA ZER ORDUTAN EGINEN DEN ADIERAZTEN DUENA ETA UDALAREN WEB-ORRIAN (www.lesaka.eus) ETA IRAGARKI-TAULAN ARGITARATZEKO AGINDUA EMATEN DUENA.

125778R espedientea.

Alkatearen 92/2024 Ebazpenaren bidez onartu zen deialdia, Lesakako Udaleko arkitekto tekniko eta hirigintzako arduradunaren lanpostua betetzeko, gehienez ere 3 urteko iraupena izanen duen aldi baterako kontratu baten bidez.

Oinarriak argitaratu ziren 2024ko martxoaren 7ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean, 49. alean.

Epearen barne 5 eskaera aurkeztu dira.

Epamahaia bildu da eskaerak aztertzeko eta denek onartuak izan dira.

Deialdiaren 4 eta .6. oinarriek jarraituz,

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 21.1 artikuluan ezarritako eskumenak erabiliz, honako hau

EBATZI DUT:

1.) Lesakako Udaleko arkitekto tekniko eta hirigintzako arduradunaren lanpostua, aldi baterako, betetzeko (B maila) onartutako izangaien behin betiko zerrenda onartzea,

-ONARTUAK:

1- ***1394**
2- ***3117**
3- ***0488**
4- ***7415**
5- ***3512**

-BAZTERTUAK:

-Inor ez.

2.) Oposizioko proba egiteko lekua, eguna eta ordua zehaztea:

-Proba teorikoa: 2024ko maiatzaren 7an, goizeko 9,00etan, Lesakako Udaleko liburutegian (Komentu karrika, 1, Lesaka).

3.) Ebazpen hau Lesakako Udalaren web-orrian (www.lesaka.eus) eta iragarki-taulan argitaratzeko agindua ematea.

4.) Ebazpen hau epaimahaikideei jakinaraztea.

ALKATEA,
LADIS SATRUSTEGUI ALZUGARAY.

IDAZKARIA,
M.JOSE LARRAYOZ ARIZTEGUI.